

Victoria Eugenia

Gipuzkoako populazioa izugarri zahar-tzen ari dela irakurri berri dut. Orain ulertzen dut zergatik Victoria Eugenia eraikitzen, duela ehun urte inguru, hogeitalau hilabete pasa zituzten eta berri-tzen sei urte luze joan diren. Victoria Eugeniako oholtzak ez zuen arrotz bertsolaritza. Omenaldi mordoska egin genuen zahar-rean. Berria estreinatzea ere egokitu zitzaigun, baina ez pasadizorik gabe. Haizete eguna zen Donostian; antzokiaren atzealdeko kristal bat txikitu zuen erauntsiak; abesbatzaren ahotsa bezain ozen entzuten zen barruan haizearena... Irten nintzen bertso bat botatzera. Jarri zidaten niretzakoxe argifoko bat sabaitik beherakoa, ia ia zerutiarra, kopeta lehen baino zuriago eta burua lehen bezain gorri bistarazten zizkidana. Hasi nintzen, hasi. Eta bertsoa bukatzeaz neukala, sabaitik eroritako harri-koxkor batek kopetan jo ninduen, kanka! eta bigarren punpa oinetan egin zidan. Jendeak barre egin zuen. Barre egin nion nik ere nire buruari. Estreinaldia ez ote zuten oso presaka egin bururatu zitzaidan. Maiatzetik hurbilegi gaude gaue onerako. Eta ez naiz astoengatik ari. Tira, astoengatik ere ari nintzen, bai.

Zuritik beltzera

Askotan hobetsi izan dut gure aurpegi artisaua, artistarena potoloegi geratzen baita gure larrurako. Baina guk ere izan-gu dugu zerbait artistatik. Buruak krak egiten digu zenbaitetan. Ez dakit hain nabarmen sekula sentitu izan nuen. Eibarren dena etorri egiten zitzaidan bazkalondoan. Igorren, iluntzean, ekartzen saiatuta ere lanak izan nituen. Zortzietan amaitu genuen Eibarren



DANI BLANCO

eta bederatziak eta hamarrerako oholtzan ginen Igorren. Hirurogeita hamar minutuan egin genezake zuritik beltzera. Eta edanak ez du zerikusirik; mozkorraldiak segur aski, bai. Gauza bakarra da sortze unerako etsitzea baino kaltegarriagoa: askiestea. “Ez etsi eta ez askietsi” izan behar luke, edozer-tan dela ere, plazaz plaza dabilenaren goiburu.

Ardo ona

Denboraren poderioz hobera egiten duena omen da. Ez dakit hala den sormen kontuetan. Teorian, adinak laguntza behar luke sormenerako traba baino gehiago. Eskarmentuak lagundu egin behar luke; memoriak oinarri sendoagoak lituzke irudimena nahi bezala moldatzeko; egindako bideak bideska berriak aurkitzera bultzatu behar luke sortzailea... Ingurura begiratuta ordea, idazleengan adibidez, ez dut horrelakorik sumatzen. Mario Vargas Llosak aspaldian idatzi zituen bere lanik handienak. Gauza bere-tua Gabriel García Márquezek. Gure arlorra etorrita, ez dakit

bertsolaria adinarekin hobetu egiten den. Nekez segur aski. Joxe Agirreren kasua hor daukagu ordea. Larogei urte ez ditu urruti. Pare bat eskas. Errepublikak egunekoa da, Jon Sarasua bezala, Eibarren. Eta badirudi urteek ez diotela meilarik egiten. “Zer moduz Oranda?” galdetzen didaten bakoitzean, azken aldiari behintzat, erantzun bera ematen dut: “Oranda? Oholtzara igotzen gaizki. Goian fenomeno”.


Kontraesanak

Asko entzuten dugu bertsolariok, beti geu aritzen garelara ematen du baina. Kontraesan handiekin egiten dugu topo. Herri honetan ez da harrizkekoa bestalde. Hitzaldi pare bat eman nuen Arrasateko Udal Euskaltegian. Entzuleen artean ziren euskara ikasten hasi berri zirenak ere. Bertakoak, kubatarren bat, kataluniarrak, errumaniar itxurako bat. Bertokoak, alegia, Arrasaten. Irakasleen iri-

«

Jendeak barre egin zuen. Barre egin nion nik ere nire buruari. Victoria Eugeniaren estreinaldia ez ote zuten oso presaka egin bururatu zitzaidan. Maiatzetik hurbilegi gaude gaue onerako. Eta ez naiz astoengatik ari. Tira, astoengatik ere ari nintzen, bai


»



irudiak:
Antton Olariaga

«
 'Zer moduz Oranda?' galdetzen didaten
 bakoitzean, azken aldian behintzat, erantzun bera
 ematen dut: 'Oranda? Oholtzara igotzen gaizki.
 Goian fenomeno'
 »

tzia zen, ordu pare batean sufritu arren, on egingo ziela berbaldi luze samarrak, belarriak ohi-tzeko baino ez bazen ere. Txintxo egon ziren oso eta parte ere hartu zuten, bakoitzak bere ahalmenaren neurrian. Handik egun gutxira ikastola batean egin genuen bertso-afaria. Giroa ezin hobea zen. Ikasle eta ikasle-ohi mordoska genituen afari-kide. Denek zekiten euskaraz, ez baitziren alferrik urteetan ikastolan ibiliak. Guri denek euskaraz egiten ziguten. Belarria luzatzea aski zen ordea, euren artean ze joera zuten sumatzeko.




Bertsoa urruti

Familiarteko bazkari batetik heldu berria zarela esatearekin beti galdera beretsua egingo dizu jendeak: "Eta familian botatzen al duzu bertso-rik?". Ezezkoarekin azaleratzen zaie harridura. Ez dakit zergatik. Buruak ere behar izaten du atsedena; bihotzak ez du zertan jendaurreko kilimarik sentitu beti; isilik ere ongi egoten da.

Erantzungailu automatikoa

Gipuzkoako Bertso Eskolen eguna burutu zuten Oñatin eta partaide izateko zortea izan genuen. Ehunka ume eta gazte bildu ziren, urtean zehar bertso-



eskolatan parte hartzen dutenak. Ez zen batere publiko samurra bazkalondoko saiorako. Amaia Agirre eta biok eginahalak egin genituen eta ez dakit osorik irten ginen. Magoarena izan zen esanguratsua. Txan mago ona da. Eta euskalduna. Aurrez aurre zeuzkanak ordea barrabas-belarrak ziren. Erantzuten ohituak. Isilik ez geratzen trebatuak. Begiak zoli eta mihia zalu. "Zapirik ez daukat orain!" esan magoak eta ume berbontziren batek "Bai! Bai! Ezkerreko eskuan gorde duzu!" erantzungo zion ozen. Hamar-hamabi urteko haurra baino gauza fidagaitzagorik ez da. Bertso-eskolan dabilena bada gainera, ia bere amarentzat hobea jartzen da inorentzat baino. Eskolatik kritikotasunean hezi behar ditugula ari garelarik, Oñatin zeukaten pedagogoez adibide bat egokia.

Batzar Nagusia

Bertsozale Elkartearena. Martxoaren azken egunez, Igorren. Batzarra burutu aurretik ari naiz lerro hauek idazten. Ez dakit aurten zer gertatuko den. Hogei urte

«
 'Eta familian botatzen al duzu bertso-rik?'.
 Ezezkoarekin azaleratzen zaie harridura. Ez dakit
 zergatik. Buruak ere behar izaten du atsedena; bihotzak
 ez du zertan jendaurreko kilimarik sentitu beti;
 isilik ere ongi egoten da
 »

atzera egin dit oroiminak. Ez genekien ia ezer auto-antolakuntzaz. Baina maite genuena, bertsolaritzaz, geuk nahi genuen gobernatu. Hots, geuk nahi genion jaten eman. Eman genion eta hazi egin zen.

Orain atrofia eta hipertrofiaren arteko gorputz-orekaren ariketa zail horri helduta ari gara lanean. Badut konfidantza gerorako ere zerbait asmatuko dugunarena. Gai-

nera aurten, behar bezala agurtu behar dugu Koldo, sindikalgintzan zailduta-ko "gure patroia handia". ■